

Udarregi ikastola, I.K.E.-ko bazkide Batzarra

Atzo egin genuen UDARREGI IKASTOLA, IKE-ko Batzar Orokorra eta Artezkaritza Kontseilutik eskerrak eman nahi dizkizuegu bertaratu zineten guztioi.



Laguntza eskaera euskarazko liburuen truke azokarako

Euskararen egunaren bezperan euskarazko liburuen truke azoka antolatuko dugu ikastolan, Agerialdeko patioan.

HH5-LH6 bitarteko ikasleak animatuko ditugu aldez aurretik euren liburu bat(zuk) ekarri eta bertan parte hartzera.

Horretarako **abenduaren 2an**, gutxigora behera **16:00etatik 17:00tara gurasoen laguntza eskertuko genuke** truke azoka aurrera eramán ahal izateko.

Animatuko zinateke?

Kasu horretan jakinarazi iezaiozu zure seme-alabaren tutoreari edota idatzi euskarazgattunk@udarregi.eus helbidera. Gaur azken eguna.



Erle eguna

Bihar, azaroak 30, Erle eguneko azokan DBH4-ko ikasleek gozogintza postua jarriko dute, ikasbidaiarako dirua biltzeko. Animatu eta bertaratu postura!



Euskararen eguna

Abenduak 3an, euskararen eguna ospatuko dugu ikastolan. LHkoekin goizean ekintza batzuk burutuko ditugu eta 11:50 aldera Mikel Laboa plazan denok elkarrekin abestuko dugu. Arratsaldean, 16:10ean, HH-ko eta LH1 eta LH2ko ikasleekin jolaslekuan eguna kantuz amaituko dugu. Zuek ere gurekin abestera gonbidatuta zaudete!!!



Arberoa ikastolari laguntza

Duela lau aste, Nafarroa Beherako Arberoa ikastolak su hartu zuen eta sustengu kanpaina bat abiatu du haien proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Internet bidez denda txiki bat ireki dute du.

[Hemen produktuak](#) Animatu eta lagundu!



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Baserritar jantzien trukea

Baserritar jantzien berrerabilera bultzatzeko, txiki geratutako arropak besteen eskura jartzeko aukera izango duzu.

Horretarako, Hitz Aho guraso elkarteak kaxa bat jarriko du Agerialde eraikineko HH-ko sarreran, arropa eta osagarriak jasotzeko. Jantziak uzteko epea abenduaren 2tik 10era izango da.

Abenduaren 12an 16.30etan behar duzuen hartzeko aukera izango duzue.

Oharra: ez da beharrezkoa ezer uztea zerbait hartu ahal izateko.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

2 urteko geletako ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Abenduak 19ko txistorra jana

Abenduaren 19an HH (3-6 urte) ikasleek txistorraren ogitartekoa jango dute. Lau aurkera egongo dira beharrak asetzeko:

- Txistorra glutendun ogiarekin
- Txistorra gluten gabeko ogiarekin.
- Txistorra beganoa glutendun ogiarekin
- Txistorra beganoa gluten gabeko ogiarekin.

HH-koen ogitarteko bakoitzaren prezioa **1,5 €** izango da eta ikasle bakoitzak bere tutoreari **abenduaren 13a** baino lehen ekarri beharko dio eskudirutan.

Mila esker.

Antolatzaileak: DBH4ko ikasleak



LEHEN HEZKUNTZA

Abenduak 19ko txistorra jana

Aste honetan geletan abenduak 19ko txistorraren inguruan galdetuko zaie ikasleei. Lau aurkera egongo dira beharrak asetzeko:

- Txistorra glutendun ogiarekin
- Txistorra gluten gabeko ogiarekin.
- Txistorra beganoa glutendun ogiarekin
- Txistorra beganoa gluten gabeko ogiarekin.

LH-ko ikasleen ogitarteko bakoizaren prezioa **2 €** izango da.

Abenduaren 5erako jakin beharko genuke zenbat ogitarteko behar dituzten eskaera guztiak egoki egiteko.

Mila esker.

Antolatzaileak: DBH4ko ikasleak



Euskarazko liburuen truke azoka

Euskararen asteko egitarauaren barruan euskarazko liburuen truke azoka ospatuko dugu. Azoka hau abenduaren 2ean ospatuko da Agerialdeko patioan arratsaldeko 16:15etatik aurrera eta bertan hainbat mahai egongo dira ipuin eta liburuekin.

Azokan parte hartu ahal izateko, zuen seme-alabek etxetik euskarazko liburu bat(zuk) ekarri beharko dituzte gelara (egoera onean daudenak) eta tutoreari eman.

Tutoreak truke azoka baino lehentxeago ekarritako liburu bakoitzeko txarteltxo bat emango die. Txarteltxo hori mahaian dauden pertsoneri emanaz nahi duten liburua hartu ahal izango dute ikasleek. Liburu bat, liburu baten truke.

Liburuak ekartzeko azken eguna GAUR da.

Zipriztindu ditzagun etxeko liburutegiak ere euskaraz!



LH2 Orioko Txurrukarako irteera-ordainketa

Ekainan, Orioko Txurrukara goaz. Hori dela eta, **abenduaren 2an, 20€** kobratuko zaizkizue. Irteeraren lehen zatiaren kobrantza izango litzateke.



LH 1eko familiei zuzendua

Teresa Olabarria optometrista ikasleekin egon da frogak pasatzen. **Abenduaren 4an, asteazkena**, arratsaldeko 17:00etan, bilera egingo da eta txostenak emango zaizkizue. Bertan, ikasleei egin zaizkien frogen berri emango da txostena hobeto ulertu ahal izateko. Horrez gain, ikusmen-prebentzioko aholkuak eta kaltetuak ikusi diren ikusmen-trebetasunak hobetzeko zenbait ariketa emango dira.

Bilera Agerialdeko 2. solairuan izango da.



Irakurketa solasaldia Sutegi liburutegian

Abenduaren 23an, astelehenarekin, **11:30ean**, IRAKURKETA -SOLASALDIA izango da, 11 urtetik gorako gaztetxoentzat (LH6-DBH).

Mintzagai izango dugun liburua: Roald Dahl-en SORGINAK.

Saioan parte hartu nahi duen edonorentzat, jada eskuragarri ditugu liburuak Sutegi Udal Liburutegian.

[Horma-irudia](#)



DBH 4ko ikasleen irteerak

❖ Durango:

Datorren astean, **abenduak 5**, Durangoko azoka bisitatzera joango gara DBH 4ko ikasleekin. Egun osoko irteera izango da eta autobus pribatuan joango gara.

Irteeraren helburua euskal kultura sustatzea izango da hain ezaguna den azoka bisitatuz.

Irteeraren prezioa 13 eurokoa izango da autobusaren prezioa dela eta. Betiko bideetatik egingo da kobrantza.



❖ Zumaia:

Eguraldiak laguntzen badu, asteazkenean, **abenduak 4**, DBH 4. mailakoak Zumaiaiko Geoparkea eta Flysch-a ezagutzera joango gara Biologia-Geologiako ikas irteeran. Bertan ebaluaketa honetan landutakoak praktikara eramatea izango da helburu. Gogoratu hamaiketakoa eta Mugi garraio-txartela eramatea.

Abenduak 19ko txistorra jana

Aste honetan geletan abenduak 19ko txistorraren inguruan galdetuko zaie ikasleei. Lau aukera egongo dira beharrak asetzeko:

- Txistorra glutendun ogiarekin
- Txistorra gluten gabeko ogiarekin.
- Txistorra beganoa glutendun ogiarekin
- Txistorra beganoa gluten gabeko ogiarekin.

DBH-ko ikasleen ogitarteko bakoizaren prezioa **2,5 €** izango da.

Abenduaren 5erako jakin beharko genuke zenbat ogitarteko behar dituzten eskaera guztiak egoki egiteko.

Mila esker.

Antolatzaileak: DBH4ko ikasleak



Ebaluazio-txostenak

Datorren ostegunean, abenduaren 5ean, igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora. Ondoren, tutoreak kontaktuan jarriko dira guraso-bilerak zehazteko.



Irakurketa solasaldia Sutegi liburutegian

Abenduaren 23an, astelehenarekin, **11:30ean**, IRAKURKETA-SOLASALDIA izango da, DBHko gaztetxoentzat. Mintzagai izango dugun liburua: Roald Dahl-en **SORGINAK**. Saioan parte hartu nahi duen edonorentzat, jada **liburuak eskuragarri** ditugu Sutegi Udal Liburutegian. [Horma-irudia](#)

